# SARETUZ

**KONTSUMO KONTZIENTE ETA ARDURATSURAKO SAREA DONOSTIAN**

KONTSUMITZEKO BESTE MODU BAT,
AURREZTEKO BESTE MODU BAT ETA
HIRIAN BIZITZEKO BESTE MODU BAT



Gero eta erakunde gehiago gara Donostian ere **egungo ekoizpen eta kontsumo sistema nagusitik at** kontsumitzea, aurreztea eta bizitzea posible dela uste dugunak, **sozialki eta ingurumenarekiko jasangaitza dela** ulertzen dugulako.

Hori dela eta, Kontsumo Kontziente eta Arduratsu (KKA) bat proposatzen dugu, **nagusi den ekoizpen eta kontsumo eredua zalantzan jartzen duelako** eta gure kontsumo ohiturak berriz pentsatzera eta txikiagotzera gonbidatzen gaituelako.

Zentzu honetan, kontsumitu aurretik eta kontsumitzen ari garen bitartean hainbat galdera egin diezaiokeegu gure buruari

- **Benetan** erosi nahi dudan hori **behar al dut**?
- Erantzuna ezezkoa denean, Nola ase dezaket behar hori **produktu berri bat erosi gabe**?
- Erantzuna baiezkoa bada,
  1. Kotxez noa azalera **handiko denda batera edo auzoko denda batean** egiten dut erosketa?
  2. **Nondik dator erosten dudana**? Zer bidaia egin du?
  3. **Nola saltzen didate erosten dudana**? Nola doa ontziratua? Zenbat ondakin sortuko dira ontziratzearekin?
  4. **Zein baldintzetan ekoiztu da**? Ingurumenarekin arduratsua edo aldiz oso kutsakorra den enpresa bat al da? Langileen eskubideak errespetatzen al ditu?
  5. Fruta edo barazkien kasuan… Nola izan da landatua? Lurraren erritmoak errespetatu al dira edo aldiz lurra gain-esplotatu da? Transgenikoa al da? Pestizidak eta antibiotikoak gehitu al dira?

- Produktua erabiltzerakoan, **zer egin dezaket zaintzeko eta ahal den gehiena irauteko**?
- Bere erabilpena behin bukatuta, konpondu ahal da? Berrerabili ahal da? Ba al dut gertu birziklapena segurtatu ahal didan sistemaren bat?

### *Guk oso argi dugu, gure aukera erraza da*

- Kontsumitu ditzagun gure etxetik, hiritik... ahalik eta gertuen ekoizten diren produktuak zein zerbitzuak, auzoko dendari txikiei erosiaz zein baserritarrei zuzenean. Gogora dezagun: auzoak bizirik eta auzoko bizitza.
- Ahal den einean, **produktu naturalak, bertakoak, garaikoak, ekologikoak**.
- Gertu ekoizten ez den gainontzeko guztirako, Bidezko Merkataritzako produktuak hauta ditzagun
- Produktu askorekin, gehiegizko ontziratzeak, banakakoak ekidin ahal ditugu eta ontziratu gabekoak aukeratu, eraman dezagun gure ehunezko poltsa plastikozkoak saihezteko.
- Berrerabil ditzagun gelditzen zaizkigun hondakinak: birziklapena, bigarren erabilerak, kreatibitatea, artea...
- KKA pertsona zoriontsuagoak, askeagoak... egiten gaituen egintza bat da, pixkanaka koherentziara eramaten gaituena (praktika - pentsamendua).

Dugun BOTEREaz jabetu behar gara. Gure kontsumo ohiturak aldatzen baditugu justizia, aberastasun-birbanatzea, ekonomia berlokalizatzea, ekitatea eta abar bilatzen dugulako, orduan sistema bera ere aldatu beharko da.

**Saretuz**, Donostiako ekimen eta alternatibei buruz gehiago jakiteko edota parte hartzeko: www.saretuz.com

MUGARIK GABE

Emaús

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasun eta Lankidetza Atala
Sección de Igualdad y Cooperación

SARETUZ
Kontsumo arduratsua Donostian
Consumo Responsable en Donostia